2025ZAUN0100

# *2025-2026 ESKOLA KIROLA PROGRAMAREN KUDEAKETAREN KONTRATAZIOA*
# CONTRATACIÓN DEL GESTION DEL PROGRAMA DEPORTE ESCOLAR 2026-2028

**– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –**

| | |
|---|---|
| ***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA** | KULTURA, HEZKUTZA, GAZTERIA ETA KIROL ARLOA / AREA DE CULTURA, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES |
| ***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE** | 2025ZAUN0100 |

**LEHENA**.- Eskola kirolaren ikaskuntzaren alorrean, Eskola Kirola 2026/27 eta 2027/28 programaren kudeaketa da kontratuaren xedea.

Zehazki, kontratuaren barne dauden irakaskuntzek oinarrizko programako jarduerak dituzte erreferentzia. Programa hori Irungo Udalak landu du, ikastetxeekin eta Udalaren Euskara Zerbitzuaren lankidetzan.

**BIGARRENA**.- Zerbitzua ematen duen enpresa esleipendunaren betebeharrak hauek izango dira:

a) **Xedea**. Zerbitzu emate horretan, eskola kiroleko kirol anitzeko programan izena eman duten taldeei hainbat ikasketa emango zaizkie, pre-benjamin, benjamin eta alebin kategorietan, Kirol Zerbitzuak kontratistaren eskura jartzen dituen kirol instalazioetan, ikastetxeekin lankidetzan eta ikastetxeko kirol materialarekin.

b) **Egitura Teknikoa**. Kirol Zerbitzuak agintzen dituen eta eskola kirolean inskribatuta dauden taldeak artatzeko beharrezkoak diren giza-baliabideak jarriko ditu enpresa esleipendunak. Zerbitzua emateko egitura teknikoari dagokionez, hauek osatuko dute gutxienez:

- Koordinatzeko Egitura. Horrela banatuta:
  - Koordinatzaile Orokor bat 2026eko irailatik 2027ko ekainaren 30era eta 2027ko irailatik 2028ko ekainaren 30era.

  - Koordinatzaile Orokorrak irailan honako zereginak egin beharko ditu.

  - a) Kirol Zerbitzutik egunero bidaltzen zaizkion Eskola Kirola programarako izen-emate guztiak jasotzea.

**PRIMERA.-** El objeto del contrato la gestión del programa Eskola kirola de enseñanzas del deporte escolar de los cursos escolares 2026/27 y 2027/28.

En concreto, las enseñanzas incluidas en el contrato hacen referencia a las actividades del programa de base elaborado para el término municipal de Irun por el Ayuntamiento de Irun en coordinación con los centros escolares y el Servicio Municipal de Euskera.

**SEGUNDA.-** La empresa adjudicataria del servicio vendrá obligada a:

a) **Objeto**. La prestación de servicios consistirá en la prestación de las enseñanzas a los grupos inscritos en el programa polideportivo de deporte escolar, categorías pre-benjamín, benjamín y alevín, en las instalaciones deportivas que el Servicio de Deportes ponga a disposición del contratista en colaboración con los centros escolares y con el material deportivo del centro escolar.

b) **Estructura Técnica.** La empresa adjudicataria se obliga a aportar los recursos humanos necesarios para atender a los grupos inscritos en deporte escolar que el Servicio de Deportes le asigne. La estructura técnica para la prestación del servicio se compondrá como mínimo de:

- Estructura de Coordinación. Compuesta por dos jornadas completas:
  - Un Coordinador/a General que prestará sus servicios desde septiembre de 2026 al 30 de Junio de 2027 y desde septiembre de 2027 al 30 de junio de 2028.

  - Las labores del/ de la Coordinador/a General en el mes de septiembre serán las siguientes:

  - a) Recepcionar todas las inscripciones al programa Eskola Kirola que se le envíen desde el servicio de deportes a diario.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JUHE-1SVT-6TSO-RE76
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (13/01/2026 14:21 CET)

2025ZAUN0100

- b) Jasotako izen-emateen taldeak sortzea, ikastetxeen eta adinaren arabera.
- c) Programan parte hartu nahi duten behar bereziak dituzten ikasleek behar izan dezaketen arreta espezifikoa programatzea.
- d) Sortzen diren taldee bakoitzaren begiralea aurreikustea.
- e) Begiraleen lan-poltsa bat sortzea, ikasturtean zehar gerta daitezkeen bajei erantzun ahal izateko.
- f) Lan-poltsa hori Kirol Zerbitzuari ematea
- g) 2025/26 ikasturterako programazioa diseinatu, kirol zerbitzuarekin batera.
- h)Jardueren eta egutegiaren 3 proposamen desberdin aurkeztea, gutxienez.
- i) Begirale taldearentzako prestakuntza-jardunaldiak programatzea. Datak eta lekuak.
- j) Irungo ikastetxeetako Eskola Kiroleko koordinatzaileekin egiten diren bileretara eta Kirol Zerbitzuak deitzen dituen bilera guztietara joatea

- Beste lanaldi oso bat (koordinatzaile laguntzaileak) 2026ko urritik 2027ko maiatzaren 31ra eta beste bat 2027ko urritik 2028ko maiatzaren 31ra.

- Eskola Kiroleko hezitzaileak. Udalak esleitutako eskola-kiroleko taldeei arreta emateko behar adina hezitzaile izango ditu. Urritik maiatzera bitarte emango dute zerbitzua, Udalak enpresari adierazi dizkion eta izena emanda dagoen talde kopuruaren arabera. Zerbitzua ordubeteko saioetan garatuko da, honako banaketarekin:
  - Benjamin eta alebin kategoria: 3 saio astean (2 aste barruan eta bat asteburuan)
  - Aurrebenjamin kategoria: asteko saio bat.

Saioek 60 minutuko iraupena izango dute. 15 minutuko prestakuntza gehitu beharko da aste barruko saioetan eta 30 minutukoa asteburukoetan.

- b) Crear los grupos por centros escolares y por edades de las inscripciones recibidas.
- c) Programar la atención específica que pudiera necesitar el alumnado con necesidades especiales que quiera tomar parte en el programa.
- d) Prever un monitor o monitora para cada uno de los grupos que se vayan generando.
- e) Generar una bolsa de trabajo de monitoras y monitores para poder atender las posibles bajas que se puedan dar a la largo del curso
- f) Facilitar dicha bolsa de trabajo al Servicio de Deportes
- g) Diseñar, con el servicio de deportes, la programación del programa para los cursos 2026/27 y 2027/28.
- h)Presentar al menos 3 propuestas diferentes de Actividades y calendario.
- i) Programar las jornadas de formación para el grupo de monitoras y monitores. Fechas y lugares.
- j) Asistir a las reuniones con las y los coordinadores de Eskola Kirola de los centros escolares de Irun y a todas las reuniones que convoque por el servicio

- Otra jornada de coordinación (Coordinadores de Apoyo), durante el período de octubre de 2026 al 31 de mayo de 2027 y otra de octubre de 2027 al 31 de mayo de 2028.

- Educadores/as de Deporte escolar. Compuesta de los/las educadores/as suficientes para atender a los grupos de deporte escolar asignados por el Ayuntamiento. Prestarán sus servicios entre los meses de octubre a mayo en función del número de grupos inscritos asignados por el Ayuntamiento de Irun. Este servicio se prestará en sesiones de una hora de la siguiente manera:
  - Categoría benjamín y alevín: 3 sesiones semanales (2 entre semana y una el fin de semana)
  - Categoría prebenjamin: una sesión semanal.

Aunque las sesiones tendrán una duración efectiva de 60min. Habrá que añadir 15min de preparación en las sesiones entresemana y, 30 min en las del fin de semana.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JUHE-1SVT-6TSO-RE76
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (13/01/2026 14:21 CET)

- Edozein momentutan, lehiaketetan, enpresako arduradun bat egongo da instalakuntza bakoitzean, eta bere helburua, taldeen jokalarien ordena mantentzea izango da, bai instalakuntzara sartzean, bai han egotean taldeetako kirol hezitzaileak lagunduz zeregin honetan aldioro. Instalakuntzetako mantenuko langileek jakin beharko dute nortzuk diren arduradunak.

- En todo momento, mientras se disputen las competiciones, habrá una persona responsable por parte de la empresa en cada una de las instalaciones, cuyo fin será el de mantener el orden por parte de las personas componentes de los diferentes equipos, tanto en los accesos a la instalación como mientras dure la estancia en la misma, apoyando en todo momento a los y las monitores/as de los equipos en ésta labor. El personal de mantenimiento de las instalaciones, deberá conocer en todo momento quien es esta persona responsable.

- Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa betez, adingabeekin zuzeneko harremana izanez jarduten duten langileek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean sartuta ez daudela egiaztatzen duena.

- En cumplimiento de la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, el personal que desarrolle su actividad en relación directa con menores de edad, deberá aportar certificado negativo del Registro Central de Delincuentes Sexuales.

c) **Teknikariek eduki behar duten gutxieneko profila**. Enpresa esleipendunak zerbitzua emateko kontratatzen dituen langile guztien gutxieneko lanbide-prestakuntza hau da:

c) **Perfil mínimo personal.** La cualificación técnica mínima del personal contratado por la empresa adjudicataria para la prestación del servicio es la siguiente:

- Koordinatzaile Orokorra (teknikari bat): Lehen hezkuntzako gradua aipamena gorputz hezkuntza, euskara maila egiaztatzen duen titulu ofiziala, C1 edo baliokideren bat.

- Coordinador/a General (1 persona técnico/a): Grado en educación primaria mención en educación física, titulación oficial acreditativa de nivel de euskera C1 o equivalente.

- Koordinatzaile laguntzaileak eta Eskola Kiroleko hezitzaileak: Goi mailako Kirol Teknikaria titulazioa. euskara maila egiaztatzen duen titulu ofiziala, gutxienez C1 edo baliokidea, behar izanez gero, Irungo Udaleko Euskara Zerbitzuak azterketak egingo ditu hezitzaileek bete beharreko gutxieneko maila ebaluatzeko. Enpresak justifikatuko balu ezin duela gutxieneko titulazio teknikoa duten teknikariak eduki, prestakuntza-maila baxuagoko teknikariak kontratatu litzake aldi baterako.

- Coordinadores/as de apoyo y Educadores/as de deporte escolar: Titulación Técnico/a Superior Deportivo, titulación oficial acreditativa de nivel de euskera, mínimo C1 o equivalente, el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Irun realizará en su caso exámenes que permitan evaluar el nivel mínimo para el desempeño de los/las educadores/as. En caso de que la empresa justifique la imposibilidad de contar con personal técnico que disponga de la titulación técnica mínima requerida, podrá contratarse de manera eventual a personal técnico de inferior cualificación.

d) **Ordezkapenak**. Enpresa esleipendunak zerbitzuak modu eraginkorrean eta jarraituan ematen direla bermatu beharko du, kasuan kasu, behar adinako prestakuntza duten ordezko langileak kontratatzera behartua egonik.

Begirale kontratatuei egiten ari diren bitartean betebeharrak ongi betetzeko eskatuko zaie. Udala ez balitz ados egongo hezitzaileetako batek egindako jardunarekin, langile hori enpresako beste langile batez ordezkatua izan ledin eska lezake.

d) **Sustituciones.** La empresa adjudicataria deberá garantizar la prestación efectiva y continuada de los servicios, obligándose a, en su caso, contratar personal sustituto debidamente cualificado.

Se exigirá del personal contratado el perfecto cumplimiento de sus obligaciones durante su ejercicio profesional. En caso de disconformidad por parte del Ayuntamiento en relación con la labor realizada por alguno de los profesionales educadores, podrá solicitar el reemplazo de dicho profesional por otro de la empresa contratada.

e) **Langileen prestakuntza**. Enpresa esleipendunak bermatuko du hezitzaileen eta ikasleen arteko harreman pedagogikoak kalitatezkoak eta

e) **Formación del personal.** La empresa adjudicataria garantizará que las relaciones pedagógicas entre el personal educador y el alumnado serán de calidad y



Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (13/01/2026 14:21 CET)
Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JUHE-1SVT-6TSO-RE76

planifikatuak izan daitezela. Helburu horri begira, irakasle bakoitzak ikasturtean zehar euskarazko prestakuntza espezifikoa jasoko du; gutxienez, 10 orduko ikastaro bat, eta, gutxienez, 2 saiotan banatuta. Ikastaroa eskola kirolaren antolamendu-sistemari buruzkoa izango da, eta bertan haurren artean euskararen erabilera sustatzeko estrategiak eta hezitzaileentzako baliabide didaktikoak landuko dira bai eta programan parte diren kirol araubidea ere. Era berean, gutxienez 4 ordu genero ikuspegia lantzeko prestakuntza espezifikokoak izango dira.

planificadas. Con este fin cada docente recibirá a lo largo del curso un mínimo de 10 horas distribuidas en un mínimo de 2 sesiones de formación específica íntegramente en euskera que incluirá información relativa al sistema organizativo del deporte escolar, estrategias para promover el uso del euskera por parte de los niños y niñas y recursos didácticos para los educadores y las educadoras y conocimiento de la normativa de los deportes que forman parte del programa. Asimismo, al menos 4 de estas horas se destinarán a la formación específica en perspectiva de género.

**Hezitzaileen lanaren jarraipena.** Eskola kiroleko hezitzaileen zereginaren jarraipena eta kontrola burutuko du enpresa esleipendunak, eta aspektu hauetan jarriko du arreta berezia: lan pedagogikoa egokia den, tratu egokia ematen zaien ikasleei eta eskola kiroleko gainerako eragileei, euskara erabiltzen den eta gainerako beste aspektu batzuetan ere bai. Programa orokorrean egiten diren kirolen arautegiak ere bai. Jarraipen lan hau bete ahal izateko, enpresa esleipendunak "jarraipen fitxa" bat diseinatu eta bete beharko du, edozein momentutan Kirol Zerbitzuak eskatu ahalko dezakeena.

f) **Seguimiento de la labor de los educadores y las educadoras**. La empresa adjudicataria realizará el seguimiento y control de la labor de los educadores y las educadoras de deporte escolar incluyendo aspectos tales como la adecuación del trabajo pedagógico, trato adecuado al alumnado y demás agentes del deporte escolar, utilización del euskera y otras. También la normativa de los deportes que se practiquen en el programa general. Para cumplir esta labor de seguimiento, la empresa adjudicataria deberá diseñar y cumplimentar una "ficha de seguimiento" que podrá ser solicitada por los técnicos del Servicio de Deportes.

**Asistentziaren kontrola.** Eskola kiroleko ikasleei eman nahi zaien kirol zerbitzuak hainbat kalitate-baldintza bete behar ditu. Zerbitzu hori izena eman duten ikasleek soilik joango dira eskola kiroleko saioetara; horretarako, saio horietarako asistentzia kontrolatu beharko du esleipendunak.

Inskribatutako ikasleei soilik emango zaizkie klaseak. Irungo Udalak izena eman duten ikasleen zerrenda emango du; beraz, hezitzaileak ez du baimenduko behar bezala inskribatuta ez daudenen asistentzia

g) **Control de asistencia.** Dado que el servicio que se pretende dar al alumnado del deporte escolar debe reunir unas suficientes condiciones de calidad, la asistencia a las sesiones de deporte escolar se permitirá únicamente al alumnado que tengan realizada la inscripción en este servicio, para lo cual habrá de controlar el adjudicatario la asistencia a dichas sesiones.

Las clases se impartirán únicamente al alumnado, cuya relación será validada por el Ayuntamiento de Irun, por lo que el/la educador/a no permitirá la asistencia a clase a quienes no se encuentren correctamente inscritos.

**Ikasle kopurua.** Ikaskuntzaren kalitatea ziurtatzeko, Irungo Udalak gutxieneko eta gehieneko inskripzio kopuruak zehaztuko ditu talde bakoitzean, jarduerak behar bezala egin ahal izateko.

h) **Número de alumnado.** Para garantizar la calidad de las enseñanzas, el Ayuntamiento de Irun establecerá el número máximo y mínimo de inscripciones por grupo para que las actividades puedan ser realizadas

**Saio bakoitzari ekiteko baldintzak.** Enpresa esleipendunak ikaskuntza-egutegian programatuta dauden saio guztiak emango ditu beti; horretarako, nahikoa izango da erabiltzaile bakar bat bertaratzea hamabost minutuko epean, saioaren hasierako ordutik aurrera kontatuta.

Saioa aldez aurretik zehaztutako ordutegian burutuko da.

i) **Condiciones para el desarrollo de cada sesión.** La empresa adjudicataria se obliga a la impartición de la sesión siempre que se halle programada en el calendario de enseñanzas y que se presente al menos una persona usuaria dentro del plazo de quince minutos desde la hora inicial de comienzo del curso.

La sesión se realizará en el horario previamente establecido.

**Edukiak eta egutegiak**. Enpresa esleipendunak kontuan hartuko ditu beti Udalak jarduerak burutzeko aldiro onesten dituen edukiak eta egutegiko datak; hori dela-eta ikasturte batetik beste batera saio-kopurua desberdina izan ahal da. (Ikusi aurreko urteko **I. Eranskina**, erreferentzia gisa).

j) **Contenidos y calendarios.** La empresa adjudicataria se atendrá en cuanto a contenidos y a fechas a los calendarios de realización de las actividades que el Ayuntamiento de Irun periódicamente apruebe, pudiendo variar de un curso a otro el número total de sesiones por esta circunstancia. (A modo de referencia ver el **Anexo I** del año pasado.)



Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JUHE-1SVT-6TSO-RE76
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (13/01/2026 14:21 CET)

Edukiei dagokienez, ikasturteko saioen edukien programa eguneratua mantenduko du esleipendunak, betiere Udalak emandako ildoei jarraiki (gida moduan **I. Eranskinean** iazko ikasturteko programa jasotzen da).

En relación con los contenidos, la entidad adjudicataria mantendrá actualizado el programa de contenidos de las sesiones del curso siguiendo las directrices del Ayuntamiento de Irun (ver a modo de referencia el **Anexo I** que recoge el programa del curso pasado).

k) **Saioen plangintza egitea**. Eman beharreko saio guztien idatzizko plangintza egin beharko dute hezitzaileek. Saio bakoitzari dagokion idatzizko materiala Udaleko Kirol Zerbitzuaren langileek eskatu ahalko dute.

k) **Planificación de las sesiones.** Los educadores y educadoras deberán realizar la planificación de todas las sesiones a impartir por escrito. El material escrito correspondiente a cada sesión podrá ser solicitado por el personal del Servicio de Deportes.

l) **Ustekabekoak.** Gerta litezkeen premiei erantzuna emango die enpresa esleipendunak, besteak beste, hauek izan daitezkeelarik: istripua/lesioa izan duten haurreei arreta, behin behineko arreta bereziak behar dituzten ikasleentzako arreta, haurrak iristen direnean eta jasotzen direnean laguntza ematea.

l) **Imprevistos.** La empresa adjudicataria dará respuesta a las urgencias que pudieran tener lugar: atención a accidentes/lesiones, atención al alumnado con necesidades especiales puntuales, apoyo en la entrega-recogida de los niños y las niñas, etc.

m) **Ikuskaritza teknikoa**. Esleipendunak edozein momentutan ahalbidetuko du zerbitzuaren kudeaketari buruzko Udalaren ikuskaritza teknikoa; modu horretan, egiaztatu ahal izango da funtzionamendua bat datorrela pleguak eta indarrean dauden lege-xedapenek ezartzen dutenarekin.

m) **Inspección técnica.** La empresa adjudicataria permitirá en cualquier momento la inspección técnica del Ayuntamiento de Irun sobre la gestión del servicio a fin de comprobar que su funcionamiento se ajusta a lo previsto en el pliego y a las disposiciones legales vigentes.

ñ) **Materiala erabiltzea.** Esleipendunak bere saioa behar bezala garatzeko eta saioa emateko behar den materiala muntatzea eta desmuntatzea, ateratzea, jasotzea eta zaintzea.

ñ) **Manejo del material.** La empresa adjudicataria deberá montar y desmontar, sacar, recoger y custodiar el material a utilizar para la puntual realización de las sesiones.

o) **Ikasleen jarraipena.** Ikasleen jarraipen indibidualari hauek dagozkio: asistentziaren kontrola; gaitasun sozialen garapena, psikologikoak, teknikoak zein kiroletakoak eta osasunezkoak garatzea; ebaluazioa eta, eskola kirolaren bidez, garapen osoa gertatzeko beharrezkoak diren beste atal batzuk ere bai. Jarraipen honen berri emango zaio parte hartzaileen guraso erabiltzaileei hiruhilabetero banatuko zaien banan banakako fitxen bitartez.

o) **Seguimiento del alumnado.** La empresa adjudicataria será responsable del seguimiento individual del alumnado: control de asistencia, desarrollo de competencias sociales, psicológicas, técnico-deportivas y de salud, evaluación, y otros apartados necesarios para el seguimiento del desarrollo integral a través del deporte escolar. De este seguimiento se dará conocimiento a las madres y padres usuarios trimestralmente mediante ficha individualizada de las personas participantes.

p) **Hizkuntz baldintzak.** Esleipendunak zerbitzua ematerakoan baldintza hauek beteko ditu:

"Eskola Kirola" egitasmoan garatu beharreko programa eta jarduera guztiak (entrenamenduak, partidak…) euskara hutsean egin behar dira, eta jarduerak egiteko erabili beharreko material eta baliabide guztiak euskaraz izan behar dira. Era berean, haurrekiko komunikazioa, ahozkoa zein idatzizkoa, euskara hutsean egingo da.

Haurrak ez diren zerbitzuaren beste erabiltzaileek (gurasoak, tutoreak…) edozein hizkuntz ofizial erabiltzeko eskubidea dute, beraz, hitz egiten duten hizkuntzan artatuak izango dira; ezingo zaie eskatu hizkuntza ofizial batean edo bestean hitz egin

p) **Condiciones lingüísticas.** La adjudicataria debe prestar el servicio cumpliendo las siguientes condiciones:

Los programas y todas las actividades a realizar durante "Eskola kirola" (entrenamientos, partidos…) deben desarrollarse íntegramente en euskera, y todos los materiales y recursos a emplear para la realización de actividades deberán estar en euskera. Asimismo, la comunicación con los niños/as, tanto verbal como escrita, se desarrollará íntegramente en euskera.

Las personas usuarias del servicio que no sean niños/as (padres, madres, tutores/as…) tienen derecho a usar cualquiera de las dos lenguas oficiales debiendo ser atendidos en el idioma en que se expresen, sin poder solicitarles que se expresen en una u otra lengua. Si la comunicación la inicia personal adscrito al contrato

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JUHE-1SVT-6TSO-RE76
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (13/01/2026 14:21 CET)

dezaten. Komunikazioan kontratu honen menpeko langileak hasten badira euskara erabiliko dute eta erabiltzaileak erabakiko du euskaraz ala gaztelaniaz jarraitu. Publiko elebidun batentzako komunikazioak lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz egingo dira.

Guraso edo tutoreentzako idatzizko komunikazioa (emailak, SMSak…) euskaraz edo bi hizkuntzetan egingo da euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiago edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Ahoz, audioz edo ikus-entzunezkoen bitartez herritarrei ematen zaizkien mezuak eta komunikazioak euskaraz, edo elebietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz). Kontratua dela eta egindako aurkezpenak, ekitaldi publikoak, prentsaurrekoak eta antzekoak modu berean egingo dira.

Kontratuari lotutako kartelak, panelak, errotulu eta hizkuntz paisaia oro har euskaraz edo elebitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz). Bi hizkuntzetan oso antzekoak diren edo piktogramen bidez transmititu daitezkeen mezu edo izen oro euskaraz bakarrik jarriko da.

Zerbitzua ematen duten enplegatuek testua edo edozein informazio daraman identifikaziorik (txartela, plaka…) edota uniformerik balute, testu hori euskaraz ala elebietan egongo da.

Kontratu hau dela eta sortzen diren publizitate kanpaina, eslogan eta izendapen berriek (zerbitzuak, guneak…) euskaraz edo elebietan (euskara lehenetsiz) beharko dute. Euskarazko marka, lelo eta esloganak hizkuntz horretan bertan sortuko dira, gaztelaniaren itzulpen hutsa ekidinez.

Enpresa esleipendunak informazio eta ekintzetan Irungo udalak onartutako kaletegi eta tokiko toponimia ofizialak erabiliko ditu. Irundik kanpoko gainerako leku izenetan modu ofiziala erabiliko da. Zalantza edo eztabaida kasuan Euskara Zerbitzuak emango du txostena.

Kontratuari lotuta, udalari entregatu behar zaizkion dokumentu ez publiko edo barneko guztiak, hala nola txostenak, memoriak, e.a. euskaraz edo elebietan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Kontratua kudeatzeko bulegotikako materiala, hardwarea eta softwarea, prestatua egon beharko da euskaraz ere funtziona dezan. Kontratatzen den

inicialmente usará el euskera y será el usuario/a quien decida comunicarse en euskera o en castellano. Las comunicaciones dirigidas a un público bilingüe se realizarán primero en euskera y después en castellano.

La comunicación escrita (correos electrónicos, SMS…) destinada a los padres, madres o tutores/as, se deberá realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Los mensajes y comunicaciones orales, de audio o audiovisuales destinados a la ciudadanía se realizarán en euskera, o en bilingüe dando prioridad al euskera (primero en euskera y después en castellano). Las presentaciones, actos públicos, ruedas de prensa y similares relacionadas con el contrato se realizarán de la misma manera.

La cartelería, paneles, rótulos y el paisaje lingüístico en general relacionado con el contrato se realizará en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita). Todo mensaje o denominación que sea muy similar en las dos lenguas o se pueda transmitir por pictogramas se colocará solo en euskera.

Si el personal que presta el servicio llevará cualquier identificación (tarjeta, placa…) y/o uniformes que incluyan texto o cualquier información, esta estará en euskera o en bilingüe.

Las campañas publicitarias, eslóganes y nuevas denominaciones (servicios, centros, espacios…) generadas por este contrato deberán realizarse en euskera o en bilingüe (priorizando el euskera). Las marcas, lemas y eslóganes en euskera se crearán en esa misma lengua, sin que sean una mera traducción de la versión en castellano.

La empresa adjudicataria utilizará para la información y actividades el callejero y la toponimia local oficiales aprobados por el Ayuntamiento de Irun. Para el resto de nombres de lugar de fuera de Irun se usará la denominación oficial. En caso de duda o discrepancia el Servicio de Euskera informará al respecto.

Todos los documentos no públicos o internos relativos al contrato, como informes, memorias, etc. que deban entregarse al Ayuntamiento se deberán realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

El material de ofimática, tanto hardware como software, para la gestión del contrato deberá estar preparado para que funcione también en euskera. Los dominios y

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JUHE-1SVT-6TSO-RE76
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (13/01/2026 14:21 CET)

zerbitzuarekin lotuta hizkuntza batean edo bestean idatz daitezkeen webgune domeinu eta izenek, mezu elektronikoek eta abarrek euskaraz egon beharko dute gutxienez.

Subrogatzeko balizko obligazioen kalterik gabe, ziurtatu beharko da kontratuari atxikitako langileek euskararen ezagutza-maila nahikoa dutela zerbitzu egokia eman ahal izateko. Ordezkapenak egin edo langile berriak kontratatu behar direnean alderdi hori kontuan izan beharko da. Kontratua kudeatzeko enpresak langileei formazioa emango balie, euskaraz edo elebietan beharko du.

Herritarren hizkuntza-eskubideak eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa bermatzeko, beharrezko euskara maila hau da: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1, kontratuari atxikitako pertsona guztientzat (koordinatzaile orokorra, koordinatzaile laguntzaileak eta hezitzaileak). Agiri ofizial bidez egiaztatuko dira.

Hizkuntz Baldintza klausula honek klausula administratibo berezien pleguko (KABP) KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK atalean hizkuntza ofizialtasun bikoitzari buruz xedatutakoa osatzen du. Esleipendunak beti ere Irungo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauei buruzko udal Ordenantza bete beharko du, eta baita euskararen erabilera Normalizatzeko Plana ere. Kontratuaren arduradunari dagokio hizkuntz baldintza hauek kontrola eta jarraipena.

nombres de páginas web, correos electrónicos, etc., vinculadas al servicio objeto del contrato que sean susceptibles de ser escritos en una lengua u otra, como mínimo deberán estar en euskera.

Sin perjuicio de las posibles obligaciones de subrogación deberá asegurarse que el personal adscrito al contrato tiene el conocimiento del euskera adecuado para atender correctamente al servicio. En el caso de sustituciones o contratación de nuevo personal se tendrá en cuenta este aspecto. La formación que la empresa imparta a los trabajadores para la gestión del contrato será en euskera o bilingüe.

Para garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos y el cumplimiento de la regulación de oficialidad lingüística del euskera y el castellano, el nivel de euskera requerido es el C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas, para todas las personas adscritas al contrato (coordinador/a general, coordinadores/as de apoyo y educadores/as). Se deberán acreditar con los títulos oficiales correspondientes.

Esta cláusula de condiciones lingüísticas complementa lo establecido respecto a la doble oficialidad lingüística en la relativa a los DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP). El adjudicatario deberá cumplir la Ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y municipio de Irun, así como el Plan de Normalización del uso del euskera. Corresponde al responsable del contrato el control y seguimiento de estas condiciones lingüísticas.

q) **Komunikazio lanak.** Esleipenduna Udalarekin elkarlanean arituko da eskola kirola programari dagozkion komunikazio-lan hauetan: ikastetxeetan egiten den eskola kirolaren sustapenean, gurasoei eta ikasleei ematen zaien informazioan, ikasleei idatziz edo beste euskarri baten bidez ematen zaizkien komunikazioak ematean, ebaluazioetan, eta antzekoak diren beste jarduera batzuetan ere bai. Jakinarazpen guzti hauek ahal den neurrian euskaraz egingo dira, ezin bada horrela egin, bi hizkuntzetan egingo dira, eta euskarak duen lehentasunezko izaera hartuko da kontuan. Bestalde, esleipendunak Udalarekin edukiko dituen harremanak euskaraz egingo dira nagusiki.

Eskola kirolaren programarekin lotuta dauden eta Udalaren baimena duten ikerketa edo esku-hartze proiektuen garapenean ere kolaboratuko du.

q) **Labores de comunicación.** La empresa adjudicataria colaborará con el Ayuntamiento de Irun en las labores de comunicación propias del programa de deporte escolar: promoción del deporte escolar en los centros, información a padres, madres y alumnado, entrega de comunicaciones escritas u otros soportes al alumnado, evaluaciones, y otras actividades similares. Todas estas comunicaciones se desarrollarán en la medida de lo posible en euskera, cuando no sea posible en bilingüe, teniendo el euskera carácter preferencial. Por otro lado, las relaciones que deba mantener la empresa adjudicataria con el Ayuntamiento de Irun serán preferentemente en euskera.

También colaborará en el desarrollo de proyectos de investigación o de intervención ligados al programa de deporte escolar que cuenten con la autorización del Ayuntamiento de Irun.

r) **Solaskidea**. Enpresa esleipendunak ordezkari bat izendatu beharko du, Udalarekiko solaskide gisa. Solaskide bakar honek, gutxienez, astean bi orduko prestasuna izango du Udaleko Zuzendaritzarekiko koordinazio lanak egiteko eta Kirol Zerbitzuak zein Euskara Zerbitzuak deitutako bilera guztietara

r) **Interlocutor/a.** La empresa adjudicataria deberá nombrar a un/a representante como persona interlocutora con el Ayuntamiento. Esta persona deberá tener una disponibilidad mínima de dos horas semanales para realizar labores de coordinación con el Ayuntamiento y estará obligado a asistir a todas las reuniones que



Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JUHE-1SVT-6TSO-RE76
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (13/01/2026 14:21 CET)

joatera behartua egongo da. Hau ez betetzea falta larritzat joko da.

convoquen tanto el Servicio de Deportes como el Servicio de Euskera. No cumplir con esto, se considerará una falta grave.

s) **Txostenak eta Amaierako memoria**. Ikasturtearen amaieran Memoria bat emango da; bertan adieraziko da nola gauzatu den eskola kirolaren ikasturtea. Datu horiek sexuaren bitartez berezita egon behar dira.

s) **Informes y Memoria final.** Al finalizar el curso se entregará una Memoria explicativa del desarrollo del curso de deporte escolar. Los datos incluidos en la memoria deberán mostrarse desagregados por sexos.

t) **Izen-emateen kudeaketa**. Kirol Zerbitzuak ikasleen inskripzioak helaraziko dio enpresari plegu hauetan ezarritakoaren arabera.

t) **Gestión de las inscripciones.** El Servicio de Deportes, trasladará a la empresa el listado de las inscripciones del alumnado en el programa de deporte escolar conforme a lo establecido en los presentes pliegos.

**RUGARRENA**.- Hauek dira Irungo Udalaren ebeharrak:

**TERCERA.-** El Ayuntamiento de Irun, se obliga a:

a) Jardueren programazioa eta hedapena egitea.

a) Realizar la programación y divulgación de las actividades.

b) Programaren izenemateen kobrantza kudeatu.

b) Gestionar los cobros de inscripción al programa.

c) Klase saioren bat ez dela emango aurreikusten bada, Irungo Udalak derrigorrez jakinaraziko dio enpresa esleipendunari, gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin. Hala egin ezean, klasea emantzat hartuko da likidazioaren ondorioetarako, eta ezarritako prezioaren arabera kontatuko da saio hori.

c) El Ayuntamiento de Irun, pondrá en conocimiento de la adjudicataria la suspensión de cualquier sesión con una antelación mínima de dos días. En caso contrario, la clase se considerará impartida a efectos de liquidación, computándose la misma según el precio establecido.

d) Kirol instalazioak esleipendunaren eskura geratuko dira, ezarritako egutegien arabera, salbuespen izango dira egin beharreko konponketak direla-eta edo gerta litekeen ohiz kanpoko zirkunstantzia bat dela-eta ezinezkoa izatea instalazioak gaitzea.

d) Las instalaciones deportivas quedarán a disposición de la empresa adjudicataria conforme a los calendarios establecidos, exceptuando aquellos en los que, por motivos de reparación o cualquier otra circunstancia extraordinaria, resulte imposible su habilitación.

e) Prezioaren ordainketa emandako zerbitzuen araberakoa izango da. Likidazioa hilabetero egingo da, eta zenbateko osoa unitate didaktiko-talde eta hilabeteko prezioaren eta dagokion hilabetean izandako unitate didaktiko- talde kopuruaren arteko bidekarketaren emaitza izango da. Gainerakoari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen pleguetan dago ezarrita.

e) El pago del precio se realizará en función de los servicios prestados. La liquidación será mensual y el montante total será el producto del precio unidad didáctica-grupo y mes por el número de unidades didácticas-grupos atendidos durante el mes, del programa de deporte escolar asignado por el Ayuntamiento de Irun. En lo restante, queda reflejado en el Pliego de condiciones económico-administrativas.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JUHE-1SVT-6TSO-RE76
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (13/01/2026 14:21 CET)

2025ZAUN0100

## ANEXO I.- 2025/26 EGUTEGIA / CALENDARIO DE ACTIVIDADES 2025/ 2026

| 2025-2026 | | | |
|---|---|---|---|
| **Jardunaldia** | **Data** | **BENJAMIN** | **ALEBIN** |
| 1 | Urriak 18 | TALDE KIROLA (Errugbia) | |
| 2 | Urriak 25 | TALDE KIROLA (Errugbia) | |
| | Azaroak 1 | ZUBIA | |
| 3 | Azaroak 8 | ESKUPILOTA | |
| 4 | Azaroak 15 | PADEL | SQUASH |
| 5 | Azaroak 22 | SQUASH | PADEL |
| 6 | Azaroak 29 | MAHAI TENISA | TENISA |
| | Abenduak 6 | ZUBIA | |
| 7 | Abenduak 13 | ARTZIKIROLA | |
| 8 | Abenduak 20 | HERRI KIROLAK FAMILIAREKIN | |
| | Abenduak 27 | **GABONAK** | |
| | Urtarrilak 3 | | |
| 9 | Urtarrilak 10 | SASKIBALOIA | ESKUBALOIA |
| 10 | Urtarrilak 17 | SASKIBALOIA | ESKUBALOIA |
| 11 | Urtarrilak 24 | SASKIBALOIA | ESKUBALOIA |
| 12 | Urtarrilak 31 | ESKUBALOIA | SASKIBALOIA |
| 13 | Otsailak 7 | ESKUBALOIA | SASKIBALOIA |
| | Otsailak 14 | HEZITZAILE FORMAKUNTZA | |
| 13 | Otsailak 21 | HOCKEY | SASKIBALOIA |
| 14 | Otsailak 28 | VOLEI | VOLEI |
| 15 | Martxoak 7 | IGERIKETA | KIROL EGOKITUA |
| 16 | Martxoak 14 | KIROL EGOKITUA | WATERPOLO |
| 17 | Martxoak 21 | ATLETISMO | ATLETISMO |
| | Martxoak 28 | HEZITZAILE FORMAKUNTZA | |
| | Apirilak 4 | ASTE SANTUA | |
| | Apirilak 11 | | |
| 18 | Apirilak 18 | FUTBOLA | FUTBOLA |
| 19 | Apirilak 25 | FUTBOLA | FUTBOLA |
| | Maiatzak 2 | ZUBIA | |
| 20 | Maiatzak 9 | Zumbatón / ¿OCR? | |
| 21 | Maiatzak 16 | Mendi-buelta | |
| 22 | Maiatzak 23 | Orientazio Froga | |
| 23 | Maiatzak 30 | Txirrinda | |

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: JUHE-1SVT-6TSO-RE76
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Javier Echepare Robles RESPONSABLE ACTIVIDADES DEPORTIVAS (13/01/2026 14:21 CET)